globalexpress

▸ DOSSIERRA
▸ GIDA DIDAKTIKOA
▸ JARDUERAK

2015eko Maiatza | 7 zk. | Edizio gaurkotua

Demokrazia, hautestontzietatik harago

Gaurko proposamen didaktikoaren hartzailea Bigarren Hezkuntzako ikaslea da. Hemengo jarduerak baliagarri izan daitezke hainbat alorretan: Gizarte Zientziak, Etika, tutoretzak, etab. eta, noski, gaian interesaturik dagoen zeinahi irakaslerentzat. Proposamen honen helburua argi dago: partehartzea ikasi, irakatsi eta bizi egiten den prozesua dela azpimarratzea, eta edonork parte har dezakeela bere ahalmenen arabera gogoraraztea.

1. jarduera. Demokrazia, hautestontzietatik haratago

Helburuak

- **Aztergaia sartzea, partehartzearen ideia kontzeptualizatzeko balio dezaketen hiru irudietatik abiatuta.**
- **Partehartzea kexak aurkeztu edo eskariak egin baino gehiago dela konturatzea: partehartzea egitea ere bada, bakarrik edo taldeka.**
- **Partehartzearen helburu nagusia denon ongizatea dela konturatzea, ez norberaren onura.**
- **Ikasleei, denon ongizatera egin dezaketen beren kolaborazioa ikustarazi eta gaiaz gogoeta eginaraztea.**

Orientabideak

Irudien azterketaren bitartez, irudiok gelako taldean partekatzetik abiatuta (iritzi eta iradokizunak arbelean idatziko ditugu, aukeran, ideia-jasa modura), elkarretaratzen diren pertsonek, boluntario-lanean dihardutenek edo antzekoek komunean daukatenaz erantzun bat jaso nahi da. Denak ari dira parte hartzen. Nola? Zertan? Zein helbururekin? Partehartzea, izan ere, ideia poliedrikoa da, berez, zerbaiten parte hartzea soilik esan nahi du; parte hartzea, ordea, denon ongizatearen mesedetan laguntzeko, jarduera indibiduala bada ere, hondakinen bilketan gertatzen den bezala. Azpimarra dezagun, halaz ere, partehartzeak orokorki talde bateko kide izatea inplikatzen duela, talde horren baitan konpromiso eta erantzukizunak onartzen ditugularik. Parrillari dagokionez, kontua da egiazko partehartzeaz mintzatzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun baldintza batzuetan sakontzea, hala nola boluntario jardutea, aldian behin ibili ordez etengabe aritzea, berdintasun-kondizioak, etab. Kontu bat plantea dezakegu, hots, kondizio autoritario samarretan parte hartzen ikas daitekeen edo, bestela, partehartzearen bidez geure eragina ezarri nahi dugun bakarrik, baina zergatik jakin gabe.

aurkibidea

p. 01 1. jarduera. Demokrazia, hautestontzietatik haratago
p. 02 2. jarduera. Erabaki zaila
p. 03 3. jarduera. Delegatua aukeratu behar
p. 04 4. jarduera. Zer dira hauteskundeak?
p. 05 5. jarduera. Gazteak paso egiten du politikatik?
p. 06 6. jarduera. Parte hartu nahi al duzu?
p. 07 Baliabideak – 5. jarduera. Simulazio eta eztabaidarako argudioak

2. jarduera. Erabaki zaila

Helburuak

- **Partehartzeaz mintzatzea, jarduera horretan ikasleari parte hartzen ikas dezan aukera emanaz.**
- **Trebezia sozialak lantzeko dinamika antolatzea.**
- **Geure erabakiek, geure buruan izan ezik, taldean ere eragina daukatela argi eta garbi uztea.**

Orientabideak

Hasierako irakurketa eta ondorengo galderen bitartez, proiektu komun batean parte hartzen duten eta inplikatzen diren kideen jarduera eta erabaki guzti-guztiek taldearen baitan ondorioak izaten dituztela nabarmenduko da.

Dilema horren helburuetako bat, protagonisten ikuspegi desberdinetatik aurkeztea da; izan ere, aukerarik hoberena aurkitzeko, lehendabizi ikuspuntu denetatik formulatu eta ahal diren konponbide guztiak bilatu behar dira.

Bide batez azpimarra dezagun, egiazko partehartzearen esparruan erabakirik hartu ahal izateko, aukeratu den proiektuarekiko koherente, arduratsu eta leial jokatu beharra dagoela.

Era berean, sor daitezkeen arazoei konponketa bilatzeko biderik egokienak elkarrizketa eta adostasuna diren, gogoeta egin beharra dago. Gogoratu behar dira elkarrizketa on bat aurrera eramateko jarraibideak zein diren (hitz txanda errespetatzea, entzutea, besteek emaniko arrazoiak pentsatzea, etab.).

Gogoan izan dezagun, dilema moralak jorratzeko garaian, hurrengo pausoak egin behar direla: dilema morala irakurri eta aurkeztea; ikasleei galdetzea haiek zer egingo luketen, hasiera batean, eta 7, 8 eta 9. galderei erantzutea. Emaitza nolakoa den ikusirik, iritzi berekoak diren kideen taldeak osatu behar dira eta, denen artean, aukeratutako arrazoiak idatzi.

Ondoren, talde guztiak elkarturik, bakoitzak bere argudioak irakurriko ditu. Eztabaida hori luzatu egin daiteke, beharrezkoa izatekotan. Era berean, "barometroa" motako jardueraren bat egitea egokia litzateke, elkarrizketa egin ondoren jarrerarik aldatu den ikusteko.

3. jarduera. Delegatua aukeratu behar

Helburuak

- **Alor denetan gure ordezkariak aukeratzen asmatzeko garrantziaz hausnarketa egitea.**

Orientabideak

Ideia-jasa egitea, delegatuak izan beharko lukeen profil ereduzkoa zehazten lagunduko lukeen zerrenda osatu eta, era berean, aspektu horietako bakoitza zergatik uste dugun garrantzizkoa dela arrazoitzea. Seguruenik, ezaugarri horietako batzuk izango dira entzuten jakitea, arduratsua izatea, ekimena agertzea, elkarrizketa lehenestea, mintzatzen jakitea, etab.

Bozketako emaitzak irakurrita eta ikasleek eginiko zerrenda aintzat hartuta, emaitza hori eta taldeak ezarritako erabakiak nola kontrajartzen diren nabarmendu beharko litzateke (adibidez, odol bizikoa izatearen ondorioz zakarra gerta dakioke jendeari, bere irizpidea besteenen gainetik ipini nahi du, etab.). Horrek, denon partaidetzarekin finkaturiko arauekiko errespetuaz aritzeko aukera emango digu.

Garrantzizkoa da, era berean, gainerako hautagaiez mintzatu, haien balorazioa egin eta beraiek hautatzearen aldeko eta aurkako aspektuak ikustea. Boto zuriaren kontua ere agertzen du ariketak. Aukera horrek nolako iritzi edo jarrerak bilduko dituen aurreikusi beharra dago: ezaxola, nahigabea, etab.

Jardueraren azken partean politika sartuko da aztergai, gure ordezkarien hautatzearen garrantziaz egin den galderaz baliatuz, informazioaren premia nabarmenduta: zer pentsatzen duten, zer egiten duten, etab.

4. jarduera. Zer dira hauteskundeak?

Helburuak

- **Ikasleak, Estatu espainiarraren hauteskunde-sistemara gerturatzea, azterketa kritikoa egitea saiatuz.**

Orientabideak

Atal honetan agertzen den informazioa testu-liburu askotan ere irakur daitekeenez, beste hainbat materialekin osatu ahal izango da. Garrantzizkoa da hiztegi alorreko zalantza guzti-guztiak argitzea, hala nola zerrenda itxiei edota hauteskunde-barrutiei dagozkienak, erkidegoetarako hauteskundeez eta hauteskunde orokorrez ari garenean desberdinak direla azpimarratuz.

Kontzeptu horien azalpena errazteko egokia izango litzateke baliabideen artean azaltzen den web orrian sartzea, bertan agertzen direlako hautesleak, eserlekuak, barrutiak, etab. 2011 urteko hauteskundeetako emaitzak ikusita eta eserleku bakoitza alderdiei zenbat kostatzen zaien kalkulatuta, galdera garrantzitsu bat hauxe izan liteke: zergatik eskuratu du PPk gehiengo absolutua Espainian, baliodun botoen %44,63 bakarrik bildu badu? Erroldaren zein portzentaje batu du? Gehiengo-sistema huts batean zenbat eserleku izango lituzke? Nabarmentzeko beste hainbat kontu: CiUk IU-LV formazioak baino boto gutxiago dituen arren, bost diputatu gehiago lortu ditu; EQUO alderdiak, botoen %0,89 jaso badu ere ez du eserlekurik erdietsi baina BNGk, %0,76 bakarrik bilduta, bi aulkiz jabetu da. Boto-emaile gutxiagoko barrutietan botoak jasotzen dituzten alderdiek diputatu gehiago lortzen dituzte. Bestetik, ordezkapenik ez duten boto-emaileak... zenbat dira? Boto baliodun guztiekiko zein portzentaje osatzen dute? Kontu horien inguruan iritzia eman beharko lukete ikasleek.

Era berean, D'Hondt metodoaren funtzionamendua ulertzen duten egiaztatzea ere komeniko litzateke, hurrengo datuak hartuta, ariketa praktiko bat eginez: bost eserleku eta 99.999 boto baliodun dituen barruti batean lau alderdi aurkeztu dira eta boto-kopuru hauek bildu dituzte: A alderdiak, 50.000/ Bk, 30.000 / Ck, 17.000 eta Dk, 2.999. Ikasleari gogoratu behar zaio, zatiduretan hainbana kasuan, eserlekua boto gehien daukan alderdiari emango zaiola.

5. jarduera. Gazteak paso egiten al du politikatik?

Helburuak

- **Jokoak planteatzen duen aztergaia jorratzea.**
- **Elkarrizketa, partehartzeko oinarrizko gaitasun gisa, sustatzea.**

Orientabideak

Klasea lau taldetan banatuta, horietako bakoitzari rol bat izendatuko diogu, ikasleen identifikazio pertsonalak aintzat hartu gabe. Bi taldek botoa ematera joateko premia defendatzen dute eta beste biak abstentzioaren alde daude. Talde bakoitzak defendatzen duen jarrera ondo uler dadin ahalegindu behar dugu; 2. baliabidean agertzen diren argudioak ikasleei entregatu aurretik, beraiek arrazoiren bat asmatzeko eta idatzian jartzeko eskatuko diegu. Ondoren, aipatutako argudioak entregatuko dizkiegu eta eztabaidari ekingo diogu. Hitz egiteko, txanda itxiak ezarriko ditugu. Talde bakoitzak bere txandan esku hartuko du, argudio baten alde eginez (txanda honetan kontra-erantzuteko eskubiderik ez dagoenez, besteen hizketek sortaraziko dizkieten ideiak idatzi egin beharko dituzte, geroago beren txandan azaltzeko).

Argudioak arbelean apuntatuko ditugu. Arrazoiak agortutakoan, hitz-txanda libre bat edo pare bat egin dezakegu, ikasleek elkarri erantzun diezaioten. Jarduera honetan, nork bere ideiak azaldu eta argumentatzeko gaitasuna indartzea komeni da, gainerako taldekideak konbentzitzeko eta, era berean, egiazko partehartzea bideratuko duen elkarrizketa bultzatzea. Jokoa hasi baino lehenago, elkarrizketa aberasgarri eta eztabaida oparo jator bat izateko baldintza edo jarraibideak zein liratekeen gogoratu beharko litzateke, ostera ere: hitza eskatzea, entzuten jakitea, besteek esandakoa errespetatzea, nork bere iritzia azaltzeko beldurrik ez izatea, oihuka edota irainka ez aritzea, norberaren ikuspuntuak zuzen eta argudioz adieraztea, hitz txanda errespetatzea, gainerakoek emaniko arrazoiez gogoeta egitea, ikuspuntua aldatzeko prest egotea, etab. Horrenbestez, hainbat lakio desegin beharko ditugu, bertan ez amiltzeko, hala nola aditu gabe hitz egitea, argudiorik gabe kritikatzea, bortizkiago oihukatzen badugu geure ikuspuntua gainerakoei ezarriko diegula sinestea, arrazoia beti-beti eduki nahi izatea, etab.

Baliabideak. Gida didaktiko honen bukaeran aurkituko dituzu simulaziorako eta azken eztabaidarako argudioak.

6. jarduera. Parte hartu nahi al duzu?

Helburuak

- **Partehartzeko, beharrezkoa da hainbat jarrera agertzea (kontziente izatea, arduratsu izatea, leial izatea, koherente izatea, elkar laguntzen jakitea, sen kritikoa edukitzea, konpromisoa hartzea, erabakiak hartzea, saiatua izatea, etab.) eta kondizio jakin batzuk izatea, hala nola: gure ekarpenak egiteko espazioak, harreman-sareak eta arauak finkatzea ahalbidetuko duten erakundeak, etab.**
- **Partehartzea ikasi, irakatsi eta bizitzen den prozesua azpimarratu beharra dago; beraz, nornahik, bere ahalbideen arabera, har dezake parte non edo non.**

Orientabideak

Jarduera guztiak amaiturik, berriro esango diegu ikasleei 1. ariketako parrilla bete dezaten. Benetako partehartzea eratzen duten helburuak, osagaiak eta mekanismoak zein diren koadernoan ikusi eta, gainera, jarduera batzuk egitean aplikatu ditugularik, ikasleak hainbat alorretan parte hartzeko dituen aukerak berriro planteatu ahal izango ditu. Irakasleok bultzatu eta lagundu beharko diegu, partehartze-espazio jakinak sortzeko proposamenak egin ditzaten, bai eskolan (gelako batzarrak, ikasle elkarteak, etab.) baita auzoan ere (etorkinak sostengatzeko taldeak, etab.), horiek baitira ikaslearen gertueneko giroak.

Jarduerari amaiera emateko, adibidez, arbelean laburpena egin eta, ondoren, gelan eskegiko genukeen horma-irudi bihur dezakegu. Gaia: partehartzea zer den eta zer ez den.

PARTEHARTZEA EZ DA

- Eskubidea soilik
- Gogoa dugunean soilik esku hartzea
- Kontsultatzen zaigunean iritzia ematea
- Erabakiak bai baina konpromisorik ez hartzea
- Geure interesen mesedetan jardutea

PARTEHARTZEA DA

- Eskubidea eta betebeharra
- Saiatuak izan eta prozesuan konpromisoa hartzea
- Geure burua inplikatzea eta erantzukizunak geure egitea
- Erabakiak hartu eta horren arabera jardutea
- Komunitatearen mesedetan jardutea

Baliabideak – 5. jarduera **Simulazio eta eztabaidarako argudioak**

1. TALDEA

Ederki dakigu bizitza politikoan herritarrok ezin dugula banan-banan parte hartu, alderdien bitartez aritu behar dugula. Horregatik, lau urtean behin botoa ematera joan behar izaten dugu, erakundeetan (udaletxean, legebiltzarrean, etab.) izango ditugun ordezkariak hautatzeko. Alderdi bakoitzak bere proposamen nagusiak programa politikoan biltzen ditu eta horren berri herritarrei helarazten zaie hauteskunde kanpainan. Beraz, herritar guztiek, botoa ematera joan aurretik, informazio ona jaso dezakete.

Demokrazia denon botoekin osatzen da. Partehartzea eskubidea eta betebeharrekoa dugu. Egungo gizartearen arazo larriei (langabezia, etxebizitza, desberdintasun sozialak, etab.) konponbidea ematea nahi baldin badugu, botoa ematera joan beharra dago. Horrela ez egitekotan, gerora, kexa egin eta gauzak gaizki doazela esateko eskubiderik izango al genuke?

Gure taldean, gainera, alderdi politikoetan afiliatzearen alde gaude; horrela, alderdi bateko kide izanik, haren programa politikoan eraginik izan dezakeelako herritarrak. Giza eskubideak(bizitzeko, askatasunerako, aukeren berdintasunerako eta antzeko eskubideak) benetan errespetatu eta aplika daitezen nahi bada, formularik egokiena da, gure iritziz.

Hoberena da botoa gehiengoa duen alderdiari ematea, barruti denetan ordezkariak dituelako eta, ondorioz, jende gehiagorenganako irits daiteke, gutxiengoan dauden alderdiak ez bezala. Gehiengoan dagoen alderdiak, gainera, gobernatzeko bokazioa du, ez alderdi txikiak bezala; horiek utopikoagoak dira eta egiten dituzten proposamenak ez dira handiarenak bezain errealistak, badakite-eta ez dutela gobernatu behar.

2. TALDEA

Lehen taldeko aurreneko argudioarekin bat gatozen arren, hauxe erantsi nahi dugu guk: herritarrok, botoa ematera joan aurretik, hauteskundeetara aurkezten diren alderdien programa ondo ezagutu behar dute. Edonork dakien bezala, gehiengoan dauden alderdiek komunikabideen sostengu handiagoa daukate (denbora gehiago telebistan, irratietan, tertulietan, etab.) eta baliabide ekonomiko ugariagoak dauzkate, gainera, beren mezua biztanleriaren gehiengoari helarazteko.

Ideia guztiek dute agertuak izateko eskubidea. Pluraltasuna demokraziaren ezaugarrietako bat denez, garrantzi handia du gutxiengoan dauden alderdiak ere izateak, horrela iritzi guztiak hobeto biltzen direlako. Honelako alderdiek egiten dituzten proposamen jakin askok, gainera, herritarren kezkei zehazkiago erantzuten diete.

Hondt-en metodoak kaltetu egiten gaitu. Eskuratzen ditugun diputatuen kopurua ez da bildutako boto kopuruaren araberakoa. Gure ustez sistema hori injustua da, gehiengoan dagoenaren mesedetakoa delako eta gutxiengoan dagoena, berriz, kaltetu egiten du. “Herritar bat, boto bat” printzipioa hitzez hitz beteko duen sistemaren alde gaude. Hondt-en sistemarekin, gainera, herritar batzuk ordezkaritza politikorik gabe geratzen dira.

Baliteke alderdi txikiok zenbaitetan gobernagarritasunaren giltza izatea, non eta pisu politiko jakin bat lortzen dugun, gobernu egonkorra osatzea ahalbidetuko duten akordio jakin batzuk ezartzeko beharrezkoak garen aldetik. Lehen taldearekin bat gatoz beste gauza batean: botoa ematera joan beharra dago, bestela ez genukeelako eskubiderik kexan aritzeko eta gauzak txarto doazela esateko.

3. TALDEA

Egungo alderdi-sistemarekin ados ez gaudela adierazteko modu bat da abstentzioa. Sistemak, izan ere, partehartzea biziki mugatzen du eta, gainera, lau urtean behin botoa eman dezagun eskatzen digu; hortik aurrera, gure etorkizuna ordezkariek erabakiko dute.

Hauteskunde-kanpainetan sekulako dirutzak xahutzen dira (irudi-aholkulariak, propaganda enpresak, etab.), aukera politiko jakin batzuk botatzera joatea komeni dela helarazi nahi diotelako herritarrari baina benetan egiten dena boto-emailea manipulatu eta dirutza erraldoiak desbideratzea da. Sos horiek, gizarteak nozitzen dituen egiazko arazo latzak konpontzeko erabili beharko lirateke.

Hauteskundeetan parte hartzea onartuko genuke baldin eta sistema benetan demokratikoa balitz, botoa ematea ez balitz gure ordezkariei emaniko txeke zuri bat. Gure helburua lortzeko neurri hauek proposatzen ditugu:

- Botoa eman nahi diegun herritarrekin zerrenda irekiak osatzea.
- Referendumen bidez, guregan eragin latza zuzenean duten gaiez geure iritzia eman ahal izatea.
- Guk hautatuak badira ere, ordezkariek programa betetzen ez badute, kargutik kentzea ahalbidetuko lukeen sistemarik sortzea, beste lau urte zain egon ordez.
- Beste hainbat.

Horiez gainetik, gure ustez badira partehartzeko beste modu batzuk, mugimendu sozialetatik hasita (talde ekologista, sindikatu, auzo elkarte, talde feministe, gobernuz kanpoko erakundeak, etab.). Horiek denek modu zuzenean parte hartzeko aukera ematen dute, elkarrizketa eta inplikazio pertsonalaren bidez eta, gainera, herritarren egunerokotasunetik gertuago daude beti. Mugimendu sozialetan parte hartuz erakunde eta gobernuei presioa eragin diezaiekegu bere politikak alda ditzaten eta, Ipar zein Hegoan, nornahirentzat lortu nahi ditugun hobekuntza sozialeko proposamenak jaso ditzaten. Gizarte zibilak bultzaturiko kanpaina askoren garrantzia gogoan izateko modukoa da: 0'7, soldadutzaren aurkakoa, zentral nuklearren kontrakoa, kanpo zorra kitatzekoa, Irakeko gerraren kontrakoa, euskara suspertzekoak, etab.

4. TALDEA

Abstentzioaren alde gaude alderdi politikoekin fidatzen ez garelako: berdin-berdinak dira denak. Interesatzen zaien bakarra, beraien onura, ongi bizi eta boterean irautea da, kosta ahala kosta. Ustelak dira denak.

Hirugarren taldearekin bat gatoz, botoak biltzeko xedez, politikoek kanpaina instituzionaletan eta bestelakoetan berebiziko dirutzak gastatzen dituztela diotenean. Guk badakigu helburu bakarra aprobetxategi eta jantxakurrak galkatzen segitzea dela. Diru horiek, ordea, lanbide arteko gutxieneko soldata (475 euro hilean) edo erretiroko gutxieneko pentsioa (lotsagarria!) hobetzera bidera litekeela. Bestetik, zer gertatzen da Espainiako Konstituzioak jasotzen duen lanerako edota etxebizitza duina edukitzeko eskubide horiekin? Ez direla betetzen.

Politika fartsa hutsa da, argi daukagu. Politikariek ez dute gure kontuak konpontzeko interes izpirik ere. Horregatik, nahiago dugu amarru horietatik kanpo gelditzea. Ez goaz botoa ematera, alferrikakoa dela iruditzen zaigulako. Hobe dugu konponbidea geure aldetik bilatzea.

Partehartzea betebeharreko bat da: zer esan nahi du horrek? Nolako betebeharrekoa, norena, norekikoa? Guk ez dugu burua berotzea nahi, ongi bizi gura dugu, adiskideekin giro onean egon eta bizitzari zukuak erauzi. Gainerakoei gertatzen zaiena ez da gure kontua, ez gaitu kezkatzen, ez interesatzen.